

## NARRATIBA

## Ofizioaren ajeak hizpide

## FIKZIOAREN IZTERRAK

Ur Apalategi  
Susa, 2010  
186 orrialde. 16,15 euro

Iban BALERDI

Bere lehen ipuin liburuarekin itzuli da Ur Apalategi euskarazko literaturaren erakusleiora. Aurrez idatzitako bi nobelekin batera, "Gauak eta hiriak" eta "Gure Gauzak S.A.", trilogia moduko bat itxi nahi izan omen du. Izan ere, guztietan idazlearen figura azaltzen da ardatz moduan. Horretaz gain, bikote harremanei ere garrantzia berezia ematen die, maitasunaren fikzioa deitzen dion horri erreparatuz.

Izenburuan agertzen den legez, fikzioa baita Apalategiren literaturaren beste ezaugarrietako bat. «Fikzio konpartitua» deitzen dio berak literaturarekin lor daitekeenari, idazlearen eta irakurlearen artean sortu ahal den nolabaiteko lotura, alegia. Horrelako zerbaitek lotzen du "Beste bizitza" ipuina. Bertan, narrazioko pertsonaia baten eskutik kontatzen zaigu istorioa, etengabe puntu berean gelditzen dena. Baina puntu horretan irakurle desberdinak dira gelditzen direnak, bakoitza «beirazko burbuila batean bailagoen. Literatura beirazko burbuila gisa. Harro nongoen hitzen indar soilaz sorturiko efektuak».

Arestian esan bezala, idazlea eta literatura dira ipuinetako elementu nagusienetakoak. "Azken fandangoa Buenos Airesen" izeneko ipuin luzean, gainbeheran



dagoen autore bat eta hasi berritan mundua jateko prest dagoen beste bat dira protagonista. Gauzak egiteko molde zahar nahiz berriak, mugiarazten gaituen lehia geldiezinan. Literatura sari eta kongresuen kritika zorrotza guztiaren atzean. Fikzioa izan arren, nahi gabe ere, irakurleak izen-abizenak jartzeko tentazioa izango du ipuineko pertsonaiekin. Epaimahaian ere sarien inguruan ari zaigu idazlea, berauen atzean dauden interes ezkutuen bidetik.

"Gutun bi posteritateari (Literatura eta Historia)" deitutakoa, errealitatea eta literatura bereizi ezin dituenaren kontakizun garrantza da. Historian esku hartuz, literatur munduan tokia topatu nahi

duenaren istorioa, euskal politikaren kontuak tarteko.

"Urrezko vespa" narrazioak, aspaldiko ezinezko amodio batek utzitako arrastoaz dihardu. Maitatzeaz eta maitatua izateaz. Bizitza elkarbanatzeko dagoen beharraz, baina berriz ere fikzioaren eremuan gabiltzala argi utzi nahirik, amaiera bitxi horrekin.

Zazpi ipuinen artean niri gehien gustatu zaizkidanak "Ergatibu" eta "Bernardo et Ramon" izan dira. Lehenengoan euskararen zuzentasuna obsesiotzat duen gizonaren istorioa kontatzen zaigu. Euskara ikasle askorentzat hain zaila suertatu ohi den "K" horrekin, ederki islatzen du idazleak pertsonen arteko harremanetan ika-mika zerk pitz dezakeen. Euskararen txukuntasunari hainbesteko garrantzia ematen dion idazlea beste gauza batzuetaz ere jabetuko da, gordetako obsesioak azaleratu ahala.

Atxaga eta Saizarbitoriaren izenak dituen bigarrenengoan, beste obsesio edo gainkarga bat ikus dezakegu euskal literatura ezagutarazteko asmoa duen gaztearengan. Hizkuntza txikia izanik guztiok eman behar dugu zerbaite. Badirudi hori dela buruan duen kontu bakarra, pertsonaia helduari sinesten zaila gerta badakioke ere. Existitzen garela behin eta berriz aldarrikatu behar horretan ere gainkarga daramagula, edo obsesioa al da?

Bere burua nobelagile hertsizat zuen batek ipuin liburu ederra utzi digu. Aurretzean ere bide guztiak irekiak izango dituela pentsa daiteke, literaturaren euskal unibertsoan eztena sartzen jarrai dezan.



Mikel IBARGUREN

## Dramaturgiak

txuraz literaturaren eta antzerkiaren arteko desenkontra ez da atzo goizeko kontua.

Dario Fo berak argiki esana du antzerkiak ez duela zerikusirik literaturarekin ("Le Gai savoir de l'acteur") eta Michel Azama zuzendari handiarentzat antzerkia irla baten modura gelditu da antzerki-idazleen eta bestelako generoak idazten dituzten idazleen artean. Beraz, gauza bat da literaturgintza eta bestea antzerkigintza. Badirudi elkarren paraleloan doazen bide bi direla, baina gurutzatu gabe. Tamalez.

Gurean ere, antzerki-lanen produkzio eskasari buruz eta honek jendartean duen islari buruz aritu izan direnez, ez dut goldea pasatutako lekuan berriaz goldea pasatuko; baina nago literaturak ez ote duen asmatu antzokietara hurbiltzen edota antzerkiak ez duela interesik agertu euskal liburuarekiko. Elkar aurkitu beharrean elkarrengandik ihesi dabiltzala ikustea, ordea, antzerkizale garenontzat, penagarria suertatzen da. Literaturak asko egin baitezake antzerkiarentzat eta alderantziz. Musikarekin edo zinemarekin bezala, antzerkiak bidelagun naturaltzat hartu behar luke literatura, bakoitzak bere kode zehatzak eduki arren osagarriak izan baitaitezke bata bestearentzat.

Idazketa-prozesua barrurantz begira eraikitzen den gisa, teatroa munduari irekia den plaza da, gure pentsamenei egiazkotasuna ematen dio eta, zentzu horretan, geure buruak islatu-rik agertzen diren ispilua baino ez da, literatura bezala, bestalde. Sentsazioak transmititzeko balio behar du, gogoetarako espazioa eskaintzeko; geure kontzientziak itzartu, zorrotzu eta azkartu behar ditu, Brecht-ek esango lukeen bezala. Finean, begiak gehiago zabal ditzagun lagundu behar du eta horretarako hobe elkarrekin, bereizita baino. EHAZE bezalako topaguneak sortuz, berbarako. Beste molde batez lan egin ahal izateko, ausaz. Batak ez baitu bestea kentzen edo ez luke, behinik behin.

## KALERATU BERRIAK



## RELATO DE UN ENCUENTRO

**UN PADRE DE PELÍCULA**  
Antonio Skármeta  
Planeta, 2010  
152 páginas. 16,50 euros

Jacques es un joven de una aldea chilena cuyo padre se marchó hace tiempo. En su ausencia, entablará relación con Augusto, su profesor, a quien le pedirá que le acompañe al pueblo más cercano a perder su virginidad. El autor de "el cartero de Neruda" narra un encuentro sobre el paso del tiempo y el poder del destino.



## LA OTRA MARILYN

**MARILYN MONROE: FRAGMENTOS**  
Marilyn Monroe  
Seix Barral, 2010  
272 páginas. 28 euros

Prologado por Antonio Tabucchi, este volumen contiene todo tipo de documentos personales de Marilyn Monroe, ordenados cronológicamente y con gran lujo en la reproducción de imágenes y textos facsimilares, textos estos últimos inéditos y escritos entre 1943 y 1962. Un libro que revela la complejidad del alma de la actriz.



## HITZA ETA BIZITZA

**ZAZPI ORDUAK**  
Miren Agur Meabe  
Elkar, 2010  
168 orrialde. 17 euro

Ipuinak eta koplak josi ditu Meabek "Zazpi orduak" lanean, non barne-askatasunaren bila dabiltzan pertsonaiekin, emakumeak batik bat, agertzen zaizkigun. Doltza ipuin kontalariak kontatuko ditu liburua osatzen duten istorioak, industriaurreko garaian kokatuak, hitza zenean baloreak transmititzeko balore nagusia.



## ESPERIENTZIEN KONTAKIZUNAK

**ERTZEKO ZATIAK**  
Jon Sarasua  
Argia urtekariak, 2010  
260 orrialde. 15 euro

Azken urteetan Hego Ameriketara egindako bidaietan bildutako pentsamendu eta gogoetak bildu ditu Jon Sarasua "Ertzeko zatiak" liburuan. Besteak beste, Brasil eta beste herrialde amerikar batzuetako argi-ilunak kontatzen ditu bertsolari aretxabaletarrak orain hamar urte idatzitako testuotan.